

---

## HASIERAKO OHIKUNEAK

---

*[Buru den apaiza, elkar-meza emango duten apaizak eta urtean bataioa hartu duten haurrak eta beren familiak elizaren atzealdean, sarreran, egongo dira, kandelak eskuetan dituztela. Eta guzti horiekin batera, prozesioan irakurgai-liburua eta pazko-zuzia eramango dutenak. Hortik abiatuko dira aldarerantz, sarrerako oharraren eta bedeinkapenaren ostean, abesti egokiren bat kantatuz.]*

### SARRERAKO OHARRA

“Jesusen aurkezpena Tenpluan”, horixe da gaur ospatzen duguna. Nazareteko familiak, bere garaiko familiek bezala, ohiturari eutsi eta Jesus tenplura eraman zuen Jainkoaren aurrean aurkezteko.

Jesus bizitzako argia dela irudikatzen du zeinu honek kristautentzat eta horregatik egun honi “argiaren edo kandelaren eguna” deitu izan zaio.

Gaur, geu gara argi horren eramaileak eta guztiei helarazi nahi diegu gure lekukotasunaren bidez. Argi hau ez ahal da geratuko gure tenpluaren barruan, eta eramango ahal diegu gure inguruko gizon eta emakume guztiei!

Jesusen jarraitzaileentzat, benetako bizia zabaltzea, Jesusen bizia zabaltzea da. Bera dugu lagun egiteko honetan. Pozez parte har dezagun ospakizun honetan.

### KANDELEN BEDEINKAPENA [apaiza]

*Egin dezagun otoitz.*

*Jainko Jauna, argiaren iturri eta jatorria,*

*gaur Kristo, herrien argia, Simeon gizon zintzoari erakutsi diozuna;*

*bedeinka itzazu (+) kandela hauek;*

*onartu, kandelak eskuetan pizturik dituztela,*

*Zu goratzeko bildu den*

*herriaren nahiak*

*eta onbidetik aurrera egin dezagula,*

*betiereko argira irits gaitezen.*

*Jesukristo gure Jaunaren bitartez.*

*Amen.*

*[Apaizak ur bedeinkatuz ziprztinduko ditu kandelak. Bere kandela hartu, eta, “goazen bakean Jaunaren bila”, esan ondoren, prozesioari ekingo zaio, abesten den bitartean. Aurrean, pazko-zuzia joango da, ondoren familiak beren kandelak piztuta dituztela, bataio-pastoraltzarako taldeko kideekin batera; hauen ostean, irakurle eta monitoreak eta, azkenik, apaizak, buru dena azkenean joango delarik. Hasieratik aldarearen ondoan egongo den abeslariak ekingo dio abestiari.]*

### PROZESIOAN ABESTEKO KANTUA:

*“Ilumíname, Señor con tu Espíritu”*

### APAIZAREN AGURRA:

*Gure bizitza argitzen duten Jaunaren maitasun eta bakea, zuekin...*

### AINZA ABESTU (labur):

*“Aintza Zuri Jauna ´ta eskerrak Zuri”*

### OTOITZA

*Jainko ahalguztiduna,*

*apalik eskatzen dizugu,*

*gure gizatasunez jantzitako zure Seme Bakarra  
gaur tenpluan aurkeztua izan den bezala,  
eman diezaguzula geuri ere  
zure aurrean arima garbiz aurkeztuak izateko grazia.  
Jesukristo gure Jaunaren bitartez,  
Jainko eta errege bizi baita Espiritu Santuaren batasunean,  
gizaldi eta gizaldietan. Amen.*

---

## HITZAREN LITURGIA

---

### **OHARRA IRAKURGAIEI**

Kandelak itzaliko ditugu eta Jainkoaren Hitza entzuteko prestatuko gara. Asko izan zen Salbatzailea ezagutzeko zain. Guri Haren berri eman digute eta geure erantzukizuna da beste batzuei ezagutzera ematea. Gurasoengandik seme-alabengana, benetako biziaren argi den Jesusen berri ematen diogu elkarri. Geue ere, gure konfiantza jarri nahi dugu gaur Berarengan.

**1. IRAKURGAIA:** 23 Salmoa

**ALELUIA ABESTUZ:** "Aleluia, aleluia"(Taize)

**EBANJELIOA:** Lk 2, 22-32

**HOMILIA** (laburra)

### **HAURREN AURKEZPENA**

*[Apaizak dei egingo die beren seme-alabaren bataioa gogoratzeko eta berritzeko ospakizunean dauden gurasoei aldarera joan daitezen. Hantxe geratuko dira Jainkoaren herriaren otoitza egin arte.*

*[Aldarearen inguruan, seme-alabekin batera, ondorengo otoitza esango dute:]*

*Jauna,  
Seme-alaba hauek eman dizkiguzu.  
Gure eskuetan jarri dituzu bizitza hasiberri hauek.  
onar ezazu orain, gure zeinu hau,  
esker onez aurkezten baitzikizugu gure haurrok.  
Hona hemen, zeure eskuetan uzten ditugu.  
Begira iezaiezu Aita-Amaren begiez  
eta emaezu zure Espirituaren indarra,  
Beti leial iraun dezaten  
Zuk eskaintzen dituzun  
eta zure Seme Jesusek erakusten dizkigun  
betiko Bizitzarako bidean.  
Jainko zara-eta  
gizaldi eta gizaldietan. Amen.*

### **KREDOA**

*[Kandelak pazko-zuzitik piztu eta elkarrekin, familiek eta elkarte osoak, KREDOA esango dugu]*

## JAINKOAREN HERRIAREN OTOITZA

*Fedez otoitz egin diezaiogun bere Semea guretzat salbamen eta argi izatera bidali digun Aita Jainkoari. Eskari bakoitzari hauxe erantzungo diogu:*

*"Eman, Jesus, Biziaren argia".*

1. Bakardadearen, pobretasunaren, bazterketaren, axolagabetasunaren edo atsekabearen ilunpetan bizi direnek itxaropen eta arintasunezko argia jaso dezaten guregandik. Egin dezagun otoitz.
2. Gure mundu eta gizarteko inguruabar korapilatsuen erdian, bizikidetasun zuzen, berdin eta orekatura hurbilduko gaituen argia zabaltzeko gauza izan gaitezen. Egin dezagun otoitz.
3. Gure parrokia elkartea, Espiritu Santuaren eraginez, maitasunean bat eginik bizi dadin eta Kristok egunero eskaintzen duen argia hedatu dezan. Egin dezagun otoitz.
4. Guraso hauek Jainkoak beren seme-alaben gainera isuri duen bedeinkapenez bete daitezen eta beren lekukotasunaz Jesusen atzetik jarraitzeko bidea erakuts diezaieten. Egin dezagun otoitz.

*Onartu, Jauna, gure eskari hauek. Horiek bete eta jadets dezagula guztiok Kristoren benetako argia, errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan. Amen.*

---

## EUKARISTIAREN LITURGIA

---

### OPARIAK

*[Seme-alabak bataiatu dituzten gurasoek eta elkarteko kideek aurkeztuko dituzte opariak; ospakizunean buru den apaizari eskura eman eta honek aldarean utziko ditu.]*

*Pitxerra uraz.* Bataio-egunean gure buruen gainera isuri zuten ura aurkezten dugu. Landu eta sakondu nahi dugun fede-bizitzara jaiotzea adierazten du.

*Olio.* Garai bateko borrokalaria olioaz igurzten zituzten arinago izan zitezten eta Itun Zaharreko errege eta pertsonaiak, misio garrantzitsuren baten aurrean zeudenean. Horrela, geuk ere, kristau izateak eskatzen digun indar eta bizitasunaren zeinu den Bataioko olioak aurkezten dugu

*Argia.* Bataio-egunean eta gaur batzarraren buru den Pazko-zuziak salbatzen eta argitzen gaituen Kristo berpiztua irudikatzen du. Argi hori hedatu eta besteei eskaini nahi diegu gure bizitzaren ereduarekin. Pazko-zuzian kandela piztuz irudikatuko dugu.

*Ogia eta ardoa.* Ogia eta ardoa ere eskaintzen ditugu, gizon eta emakumeak bere lanaz bizitza zentzudun eta emankorra lortzeko egiten duen lana irudikatuzko. Era berean, Jesusen eskaintzaren sinbolo, bere bideetatik ibiltzeko janari dira.

### **OPARIEN GAINENKO OTOITZA**

*Atsegingarri izan daitezela zuretzat, Jauna,  
zure Elizak ospakizun honetan pozez aurkezten dituen  
opari hauek;  
zure Semeak eskainitako ematea, indarra eta bizia  
gogoratzen eta gaurkotzen dute.  
Errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan. Amen.*

### **EUKARISTIA-OTOITZA**

- A. *Jauna zuekin.*  
R/. Eta zure Espirituarekin.
- A. *Gora bihotzak.*  
R/. Jaunarengan dauzkagu.
- A. *Eskerrak Jainko gure Jaunari.*  
R/. Egoki da eta zuzen.

Egoki da, bai, eta zuzen  
nonahi eta beti Zuri eskerrak ematea,  
Jauna, Aita gutik santu,  
Jainko ahalguztidun betiko Horri.

Zure betiko Semea  
gaurko egunez eskainia izan zen jauretxean,  
eta Espiritu Santuak adierazi zuen  
Berau zela Israelen edergarria eta atzerrien argia.

Horregatik, pozez beterik  
Zuk bidalitako Salbatzailearen bidera goazela,  
aingeru eta santu guztiakin goستن zaitugu,  
beti eta beti (esaten) abesten dizugula:

**SANTUA:** *"Santu, Santu, Santua ..."*

*[II. Eukaristia-otoitzarekin jarraitu...]*

### **GURE AITA**

### **JAUNARTZEA**

**JAUNARTZEKO ABESTIA:** *"Como brotes de olivo" ...*

---

AZKEN OHIKUNEAK

---

**OTOITZA, HAURRAK  
AMA BIRJINARI AURKEZTEAN**

*[Argi guztiak itzali, Ama Birjinari zuzendutakoak izan ezik.]*

*Maria Jesusen Ama,  
gure seme-alabak aurkezten dizkizugu:  
Jesusen anai-arreba eta Jainkoaren seme-alaba ere badira.  
Beren begiak eskaintzen dizkizugu: ikusmen zorrotza izan dezatela  
Jainkoaren agerpen eta igarotzearen arrastoak ikus ditzaten munduan.  
Beren eskuak eskaintzen dizkizugu: trebeak izan daitezela,  
ireki, eman eta ferekatzeko;  
eta baldarrak itxi, kolpatu eta jabetzeko.  
Beren bihotzak eskaintzen dizkizugu:  
ez daitezela sorgor geratu besteen oinazeen aurrean  
eta errukitsu izan daitezela beti.  
Diren eta izango diren guztia eskaintzen dizugu...  
Eta aukeratzeko gauza izan daitezenean...  
Jesus aukera dezatela eta atzean utz dezatela gezurra, indarkeria, bidegabekeria...  
Maria, hona hemen gure seme-alabak!  
Zure fedea laguntzen digu Jainkoaren eskuetan uzten.  
Maitasunez begira iezaiezu. Amen.*

**OTOITZA**

*Elkarte ospakizun honetan parte harturik,  
zure graziaz bete gaitzazu, Jauna.  
eta Jesusen bila atera gaitezela beti  
bere argiaz bete eta betiko bizia jadets dezagun.  
Jesukristo gure Jaunaren bitartez.  
Amen.*

**BEDEINKAPENA**

*Jauna zuekin.*

R/    Eta zure Espirituarekin.

*Jainkoak zuok eta seme-alabak bedeinka eta gorde zaitzatela.*

R/.    Amen.

*Jauna alde eta bidelagun izan dezazuela bizitzan.*

R/.    Amen.

*Bere argiak zuon urratsak argi ditzala eta zorion eta bakeaz bete zaitzatela.*

R/.    Amen.

*Eta bedeinka zaitzatela*

*Jainko Ahalguztidunak,*

*Aitak, Semeak + eta Espiritu Santuak.*

R/.    Amen.

**AZKEN ABESTIA**

*“Sois la semilla (Id amigos por el mundo)”*